

# TRANSBIOTIKA

SORKUNTZA KOLEKTIBORAKO GAILUA

erabiltzeko **GIDA**

Hausnarketa kolektiborako tresna digitalak

Colaborabora eta Pezestudio

## GUIA

### SARRERA

#### TRANSBIOTIKA PROIEKTUA

Aurkezpena  
Helburuak  
Begiradak  
Eskalak  
Tresnak

#### SORKUNTZA KOLEKTIBORAKO GAILUA (SKG)

Plataforma digitala  
Funtzionamendua  
Formularioak  
Grafikoak  
Gaiak  
Programazio grafikoa  
Bistaratzea  
Difusioa  
Mediagrafia

### KREDITUAK

## ERANSKINAK

ERANSKIN I. MEDIAGRAFIA

ERANSKIN II. ONDORIOAK



# TRANSBIOTIKA.ORG

**GIDA**

## SARRERA

TRANSBIOTIKA gure garaiaren konplexutasun gero eta handiagoari erantzuten dion ikerketa-ekintza proiektu bat da, bizi dugun krisi sistemiko sozio-politiko-kultural-ekonomiko-ingurumenekoak markatzen, eta COVID19-aren "bakantasan berri" honetan areagotzen dena. TRANSBIOTIKA-k ere alternatibak sortzen ditu "bizitza erdigunean jartzeak" zer esan nahi duen aztertzeko; planetaren eta gorputzen mugez, erritmoez eta bizidunaren zaugarritasunaz arduratzea proposatzen du.

Sorkuntza Kolektiborako Gailua-k gizarte gisa ditugun erronka ekologikoei, sozialei eta ekonomikoei dagokienez, "Nola bizi elkarrekin?" inguruan gogoeta publikoa egitea proposatzen du. Lineako plataforma batean datza, esparru horren barruan parte-hartzaileei gai zehatzak formulatzen dizkiena, eta haien erantzunetan oinarrituta grafismoak sortzen ditu. Posizionamendu desberdinen konbinazioek ekarpen bakoitzarekin eboluzionatzen duen lan grafiko bat ematen du, eta adimen kolektiboaren emaitza da. Proiektuak, ideietatik eta emozioetatik, Espazioen, Giza-Harremanen eta Biodibertsitatearen inguruan sakontzen du publikoak proiektuaren begiradei buruz dituen iritziak irudikatzeko: ekologikoari, kolaboratiboari, feministari, ekologikoari, kode irekikoari eta esperimentalari buruz.

Sorkuntza kolektiborako gailua [www.transbiotika.org](http://www.transbiotika.org) helbidean dago eskuragai eta kontsultatzeko mediagrafia bat dauka, zeinarekin proiektuaren ikuspuntu guztien bidez sortzen diren hausnarketan lagundu, aberastu eta elikatu.



Nola bizi gara gure  
inguruneetan?

¿Cómo habitamos  
nuestros entornos?



## TRANSBIOTIKA PROIEKTUA/ AURKEZPENA


TRANSBIOTIKA laborategia da zeinean bizitza komunerako habitat eta sistema berrien inguruan esperimintatu, hirikoa, landakoa eta naturala dena nahastuz. Ezagutzak, esperientziak, estrategiak, tresnak eta sentrazioak partekatze deialdia. Teknologia zaharrak zein berriak, materialak, kulturak edo naturak birnahasteko eta hibridatzeko gonbidapena, zeinak hirikoa eta landakoa denaren, ekoizpenaren eta erreproduktiboaren, fisikoaren eta digitalaren, bizitzearen eta gobernatzearen, erdiguneen eta periferien,... artean harreman ez-binarioak proposatzen dituen. "Bizitza erdian jartzera" gerturatzea, planetaren eta gorputzen mugak, bizi dagoenaren erritmoak eta ahultasuna kontuan hartzen. Zenbait eragileen artean pistak bilatzea eta aukerak koproduzitzea, pertsonen artean eta inguruarekin bizimodu desiragarriagoak, jasangarriagoak eta arduratsuagoak esploratzeko.

TRANSBIOTIKAK alkimia prozesua balitz bezala funtzionatzen du, zeinean ideia, tokia, praktika eta metodologia anitzak nahasten diren hiru elementu nagusien inguruan: TRANS / BIOTIKA / HABITATA (INGURUNEAK-SISTEMAK).

**TRANS-**. TRANSBIOTIKAK alkimia prozesua balitz bezala funtzionatzen du, zeinean ideia, tokia, praktika eta metodologia anitzak nahasten diren hiru elementu nagusien inguruan: TRANS / BIOTIKA / HABITATA (INGURUNEAK-SISTEMAK).

**BIOTIKA**. Organismo bizidunen eta bizirauteko behar dituzten loturen eta interakzioen berezkoa dena. Landareen, animalien eta beste mikroorganismoen espezie multzoa, lurralde edo biotopo bat eta bere baldintza klimatikoak, geologikoak edo geografikoak partekatzen dituztenak.

**HABITAT (INGURUNEAK-SISTEMAK)**. Organismo, espezie edo komunitate (gizakirena edo ez gizakirena) bat bizi dadin baldintza egokiak aurkezten dituen tokia. Inguruaren edo ingurunearen (hirikoa, landakoa, naturala edo mistoa) baldintzek edo egoerek osatzen dute; baita bere funtzionamendua erregulatzen duten sistemek ere, helburu bat lortzeko elkarrekin eragiten dioten printzipioen, arauen eta prozeduren multzo gisa ulertuak (azpiegiturak, ekipamenduak, programak, harremanak eta fluxuak barne, gizarte-sistema konplexuaren garapena ahalbidetzen dutenak).



## TRANSBIOTIKA PROIEKTUA / HELBURUAK

TRANSBIOTIKAK egungo trantsizio-prozesua habitatzeko arrastoak aurkitzen lagundu nahi du. Prozesu horiek eragina dute jada gure gobernantza-, ekoizpen- eta jabetasun-ereduetan, gure ohituretan eta bizimoduetan. "Bizitza erdian jartzea", planetaren eta gorputzen mugen, erritmoen eta bizi izandakoaren ahultasunaren ardura hartzea nolakoa den eta zer esan nahi duen esploratzea.

TRANSBIOTIKA ezagutzak, esperientziak, estrategiak, tresnak eta sentrazioak partekatzeko deialdia da. Teknologia zaharrak eta berriak, materialak, kulturak edo naturako birnahasteko eta hibridatzeko gonbidapena. Aniztasunaren, interdependentziaren, elkarrekikotasunaren eta elkarrekiko laguntzaren balioa ulertzera. Jardutea, planifikatua eta sortzen ari dena konbinatzea, eraginkorra-efizientea-afektiboa dena zaintzea. Harreman ez-bitarrak proposatzea hirikoa eta herrikoa denaren, produktiboa ete erreproduktiboa denaren, fisikoa eta digitala denaren, habitatzearen eta gobernatzearen, hiriguneen eta hiri inguruko... artean. Zubiak egitea eta erresilientzia eraikitzea. Bizitzaren haztegi eta soro izatea. Bizitza antolatzeke beste moduekiko trantsizioak sortzea. Testatzeko, eskalatzeko, moldatzeko edo transferitzeko probak egitea. Eta nola bizi garen eta bola bizi ahalko genukeen gure buruari galdetzen jarraitzea.

Zehazki, TRANSBIOTIKAREN bidez ondorengoa bilatzen da:

- Zenbait eragileen eta eremuen arteko topaketa sustatzea gure bizi-inguruetan gauzatzen diren erronka soziekologiko dimentsioaniztunei heltzeko.
- Komunitatean eta bizitza erdian jartzen habitatzeari buruzko subjektibitate berriak sortzen laguntzea.
- Kontzeptu-eremu, kit metodologiko eta tresnak proposatzea, pentsamoldeak eta egiteko moduak modu praktikoan eraldatzen laguntzen dutenak.
- Konponbide transbiotikoak elkarrekin ekoiztea, zeinek edonolako beharrei erantzuna ematen dieten azpiegitura, objektu, sistema, ingurune, zerbitzu edo ezagutza berrien bidez.



## TRANSBIOTIKA PROIEKTUA / ESKALAK

TRANSBIOTIKAn ikerketari eta esku-hartzeari ikuspuntu zehatzarekin eta finkatuarekin heltzen zaie, baina ikuspegi holistikoa, sistema integratuarena, mantentzen da (zeinean multzoa bere zatien batura baino gehiago den). Konplexutasun horri nolabaiteko ordena bilatzeko, ondorengoa modu gurutzatuan erabiltzea proposatzen dugu: eskala-sistema bat (mikro / meso / makro, ekintzak eta euren eraginak dimentsionatzeko) eta osagai-moten sailkapena (hardware / software / transware, zeinekin sistema osoa artikulatu).

**MIKRO / MESO / MAKRO** Hiru eskala, zeinetatik lurraldera gerturatu eta bertan ekin: mikro denetik, txikia, gertua denetik, zatietatik; makrora, handi, sistemiko, multzo gisa ulertuta; mesotik iragaten, erdikoa, mikroa eta markoa konektatzen duena gisa ulertuta. TRANSBIOTIKAREN erreferentzia markoarentzat: mikroa eraikuntza, ekipamendu, bizikidetzaz- edo ekoizpen-unitate bat eragiten duenari dagokio; mesoa, kale edo plaza batetik auzo edo barruti batera doanari; eta makroa, udalerritari edo lurraldeari, zeinean kokatuta dagoen edo bere eginkizunetan eragin zuzena duena (metropolia, probintzia, eskualdea). Markoa zabaltzen Badugu, makroa estatua, kontinentea edo mundu osoa izan liteke. Mikroa, berriz, eraikuntza batetik hedatu daiteke, gela bakoitzera, bere elementu funtzionaletara, bere materialetara...

**HARDWARE / SOFTWARE / TRANSWARE** Hiru osagai mota zeinekin habitatak eta harremanak artikulatzen diren: hardwarea, zati gogor eta hautemangarriei, hala nola azpiegiturei edo eraikinei buruzkoa dena; softwarea: softwareak barne hartzen ditu zati malguak eta ukiezinak, hala nola politikak, programak edo zerbitzuak; eta transwarea, fluxuekin, harremanekin, protokoloekin eta kudeatze-moduekin, gobernantzarekin, bitartekotzarekin edo konexioarekin harremana duena. Alderaketa informatikoarekin jarrailuz, TRANSBIOTIKAREN testuinguruan, sistema eragile askearekin eta irekiarekin abian diren inguruen alde egiten dugu, adimen kolektiboaren eta elkarlanaren emaitza direnak. Eta sistemak, zeinetan memoria-gaitasunaz gain (ROM memoria), balio nagusia biltegitratutakoa prozesatzeko gaitasunean dagoen (RAM memoria), hau da, zati desberdinen artean modu funtzionalean konektatzeko eta aktibatzeke orduan duen dinamismoa, aldagai askori, askotan planifikaturik ez daudenei, ordea sorberriak edo kaotikoak direnei erantzuten.





## TRANSBIOTIKA PROIEKTUA / TRESNAK


TRANSBIOTIKAREN gorputz zentrala jatorri anitzeko tresna-kaxa bat da, erabilkorrak izan daitezkeen tresnak zenbait egoeretan esku hartzeko. Kontzeptuen eta printzipioen, metodologiaren, taktiken eta diseinuen glosario irekia, trans eta biotikoa denarekin lotutako ezaugarriak modu nabarian gehitzeagatik hautatu direnak. Amaitu gabe dagoen fitxategien eta erreferentzien katalogoa, izaera teorikoa zein aplikatua dituztenak eta jolas baten piezak balira bezala konbinatzean, elkarrekin bizitzeko inguruak eta sistemak diseinatzeko, habitatzeko, zaintzeko, gozatzeko, bizitzeko, artikulatzeko laguntzen gaituztenak.

**KONTZEPTUAK** Oinarritzko ezagutza-unitateak, eraikuntza edo irudikapen mentalak, ideien definizioak, zeinen bidez esperientziak ulertzen ditugun. Kontzeptuen eraikuntzak harreman estua du errealitatearen (linguistikoa, soziala, politikoa...) esperientzia-testuinguru batekin.

**PRINTZPIOAK** Balioen, sineskerien, arauen edo erregelen multzoa, sistema edo diziplina baten berezkoak direnak, ziur edo beharrezko gisa onartzen direnak eta bere funtzionamendua bideratu edo erregulatzen dutenak.

**METODOLOGIAK** Modu ordenatuan eta sistematizatuan, ikerketa bat garatzeko, proiektu bat burutzeko edo eginkizun bat betetzeko jarraitzen diren urratsen, tekniken edo prozeduren multzoa. Metodologia mota ugari daude, egokiena (edo zenbaiten konbinazioa) hautatzeak lortu nahi den helburuaren eta jarraitu nahi den prozesuaren edo ikuspuntuaren (formala, informala, kualitatiboa, kuantitatiboa, induktiboa, deduktiboa, analitikoa, dialektikoa...) arabera da.

**TAKTIKAK ETA DISEINUAK** Jarduteko eta baliabideak antolatzeko modu zehatzak eta ezaugarriak, helburu bat bilatzeko edo proiektu bat burutzeko zuzenean aplikatu daitezkeenak. Objektuen, espazioen edo protokoloen konfigurazio, patroia eta deskribapen xehatuak eta erreplikagarriak.







Nola bizi gara  
gure inguruetan?



# SKG/ PLATAFORMA DIGITALA

SORKUNTZA KOLEKTIBORAKO GAILUA-k gizarte gisa ditugun erronka ekologikoei, sozialei eta ekonomikoei dagokienez, "Nola bizi elkarrekin?" inguruan gogoeta publikoa egitea proposatzen du. Kode-irekiko lineako plataforma da, etorkizunaren ikuspegiaren inguruko zenbait kontuetara emandako erantzunez abiatuta, grafismoak sortzen dituen mihise interaktibo batean, zeinari esker euren iritziak eta emozioak kontzeptualizatu, ulertu eta ikusgai jarri daitezkeen. Zenbait parte-hartzaileen erantzunak bateratzearen ondorioz talde-ekintza bat sortuko da, ekarpen bakoitzarekin garatzen dena eta talde-adimenaren emaitza dena.

> Plataformak honakoa ahalbidetzen du:

- Etorkizuneko erronken aurrean, gure adierazpenak irudikatzen duten banakako eta taldeko marrazkiak eta mapak sortzea.
- Eman daitezkeen etorkizunari edo etorkizunei buruz hausnartzea formularioetako galderetan aurkeztutako gaien bidez.
- Arduratzen gaituzten eta etorkizunera begira landu nahi ditugun gaien inguruan eztabaida sortzea. Elkarrekin Bizitzeko ditugun espazioak, harremanen sareak eta espeziaren arteko aniztasunaren gaien adierazitako ideia eta datuen azterketa.

**TRANSBIOTIKA**  
SORKUNTZA KOLEKTIBORAKO GAILUA

EUS | CAS X

## Zer harremanek definitzen dute gure ongizatea?

**Sorkuntza Kolektiborako Gailua-k** gizarte gisa ditugun **erronka ekologikoei, sozialei eta ekonomikoei** dagokienez, "Nola bizi elkarrekin?" inguruan gogoeta publikoa egitea proposatzen du. Lineako plataforma batean datza, esparru horren barruan parte-hartzaileei gai zehatzak formulatzen dizkiena, eta haien erantzunetan oinarrituta grafismoak sortzen ditu. Posizionamendu desberdinen konbinazioek ekarpen bakoitzarekin eboluzionatzen duen lan grafiko bat ematen du, eta adimen kolektiboaren emaitza da.

**Egon Daitezkeen Etorkizunei Buruzko Ideien Mapa**

Ondorengo galderari erantzuten modu kolektiboan MAPA bat marraztuko duzu, etorkizuneko erronken aurrean dugun begirada erakutsiko duena.

**PARTE HARTU**

**Emozioen Mapa Etorkizuneko Erronken Aurrean**

Ondorengo galderari erantzuten modu kolektiboan MAPA bat marraztuko duzu, etorkizuneko erronken aurrean ditugun sententziak erakutsiko dituen.

**PARTE HARTU**

**PARTE HARTU**

- IDEIEN galdergia
- EMOZIOEN galdergia

**PROIEKTUA**

**MEDIAGRAFIA**

**ONDORIOAK**

- IDEIEN Mapa
- EMOZIOEN Mapa

**KREDITUAK**

PARTEKATU:

## TRANSBIOTIKA

### Elkarrekin bizitzeko inguruak eta sistemak

TRANSBIOTIKA gure garaiaren konplexutasun gero eta handiagoari erantzuten dion ikerketa-ekintza proiektu bat da, bizi dugun krisi sistemiko sozio-politiko-kultural-ekonomiko-ingurumenekoak markatzen, eta COVID19-aren "bakantasan berri" honetan areagotzen dena. TRANSBIOTIKA-k ere alternatibak sortzen ditu "bizitza erdigunean jartzeak" zer esan nahi duen aztertzeko; planetaren eta gorputzen mugez, eritimoaz eta bizidunaren zaugarritasunaz arduratzea proposatzen du.

### SORKUNTZA KOLEKTIBORAKO GAILUA (SKG)

Kode-irekiko lineako plataforma da, geroaren ikuspegiaren inguruko zenbait kontuetara emandako erantzunez abiatuta, grafismoak sortzen dituen mihise interaktibo batean, zeinari esker euren iritziak kontzeptualizatu, ulertu eta ikusgai jarri daitezkeen. Zenbait parte-hartzaileen erantzunak bateratzearen ondorioz talde-ekintza bat sortuko da, ekarpen bakoitzarekin garatzen dena eta talde-adimenaren emaitza dena.

## SKG / FUNTZIONAMENDUA

Parte-hartzeko eta gailua erabiltzeko [www.transbiotika.org](http://www.transbiotika.org) web orrian sartu behar da Internetera konektatuta dagoen gailu (mugikorra, ordenagailua, tablet) baten bidez eta bi galdetegitako bat, ideiena edo emozioena, bete behar da. Era berean, proposatutako bederatzi galderak erantzun behar dira, eman daitezkeen etorkizunei buruzko egoerei eta gaiei lotuta daudenak. Galdetegien bidezko banakako erantzunak banakako ideien eta emozioen mapak sortuko dituzte. Parte-hartzaile bakoitzak bere erantzunen bidez sortutako emaitza jasoko du adierazitako helbide elektronikoa. Ondorioen atalari esker eta zenbait iragazketen bidez, talde-mapak ikus ditzakegu. Horrela, aukera dugu partaidetzari buruzko datuak partekatze eta ondorioak sortzeko, denbora-tarteen eta pertsona-taldeen arabera, ezaugarri bereziak, adina, jatorriak, bizilekuak... kontuan hartuta.

### > Gailua erabiltzeko oinarrizko beharrak:

- Sarera konektatutako gailua (mugikorra, ordenagailua, tablet...).

### > Parte hartzeko bidea:

- Sartu helbide honetan: [www.transbiotika.org](http://www.transbiotika.org)
- Hautatu galdetegia (biak egiteko aukera dago):
  - Ideien galdetegia
  - Emozioen galdetegia
- Datu pertsonalak edo taldearen izena adierazi (taldeko bistaretzea izateko).
- Galdetegietan agertzen diren etorkizuneko egoerei buruzko planteamenduak irakurri eta erantzun galdetegiak aurkezten dituen 9 galderak.
- Plataformak erantzun grafikoak eta erantzunen datuak sortzen ditu banakako partehartzearen ondorioz.
- Aukera dago erantzun grafikoa sare sozialetan partekatze.
- Bistaratu talde-mapak eta talde-erantzunen ondorioak.




Nola biziko  
gara elkarrekin?

¿Cómo  
viviremos  
juntas?



# SKG / FUNTZIONAMENDUA





## SKG / FORMULARIOAK

Sorkuntza kolektiborako gailuak bi bide proposatzen ditu etorkizunei buruzko hausnarketari heltzeko. Bideetako bat ideiena da. Besteak etorkizunari buruzko zenbait ideiak sortzen dizkiguten emozioen bidez heltzen dio hausnarketari.

Galdetegi bakoitzak sei erantzun aukera eskaintzen ditu egindako bederatzi galderentzat. Jarraitzeko, horietako bat hautatu behar da, parte-hartzailea gehien ordezkatzen duen aukera, eta bigarren hautaketa batean, hautatutako erantzunari dagokion ziurtasun-maila (1etik 5era) hautatu behar da.

### IDEIEN galdetegia,

Ideien eta gaien zenbait logiketatik eta kontzeptutatik gaietara heltzeko asmoa du, proiektuak aurkezten dituen 5 begiradekin lotuta daudenak: ekologikoa, kolaboratiboa, feminista, ekologikoa, kode irekikoa eta esperimentalak, proposatutako gainerako erantzunekiko neutroagoa edo ezberdinagoa den jareraren inguruko begirada bat barne.

- **Begirada ekologikoa:** Inguruarekiko arduratsua, kontzientea, iraunkorra, inguruarekiko sentikorra
- **Begirada feminista:** Tokikoa, inklusiboa, bidezkoa eta arduratsua.
- **Begirada kolaboratiboa:** Kooperatiboa, komunitateari bideratua, partehartzean, inteligentzia-kolektiboan eta sorkuntza kolektiboan oinarritua.
- **Kode Askeko Begirada:** prokomunen sormenaren elikatzea, guztien parte diren baliabide eta zerbitzuak
- **Begirada esperimentalak:** Ikerlaria, espekulatibotik aplikatura. Jakinminatik pentsamendu kritikora.
- **Begirada neutroa:** Ez dago posizionamendu argirik

Emaitzen erantzunak irudi grafikoan bistaratzeko eta ordenatzeko dira bi matrizeen bidez, hautatutako bidearen eta egindako galdetegiaren arabera sortutako mapa grafikoa ulertzen laguntzen dutenak.

Marrakzi hauek modu desberdinean eratzeko dira IDEIEN galdetegian eta EMOZIOEN galdetegian.

Sorkuntza kolektiborako gailua  
parte-hartzearen emaitza  
den lan grafiko baten bidezko  
hausnarketarako tresna bat da

El Dispositivo de Creación Colectiva  
es una herramienta de reflexión  
a través de una obra gráfica  
fruto de la participación

## SKG / FORMULARIOAK

**EMOZIOEN galdetegia:** Gaiei eta etorkizuneko erronkei ibilbide emozional baten bidez heltzea proposatzen du. Amodiora, Zoriontasunera, Alaitasunera, Tristurara, Amorrura eta Beldurrera lotutako emozioen taldeetan proposatutako planteamenduek eta etorkizuneko erronkek sentiarazten dizkiguten emozio motak identifikatzeko gonbidapena egiten digu.

- **ZORIONTASUN emozioak:** Ongizatea, gozamena, oreka, osotasuna, baretasuna, lasaitasuna, asetasuna, errespetua, harmonia modukoak.
- **MAITASUN emozioak:** Lilura, begikortasuna, konfidantza, desira, kooperazioa, samurtasuna, sinpatia, estimua, adiskidetasuna modukoak.
- **POZTASUN emozioak:** Gogoberotasuna, ilusioa, arrakasta, atsegina, arintzea, askatasuna, ilusioa, jakingura, alaitasuna modukoak.
- **TRISTURA emozioak:** Ezegonkortasuna, norberekeria, etsipena, etsimendua, bakardadea, asperdura, ezkortasuna, frustrazioa, oroimina modukoak.
- **SUMIN emozioak:** Tentsioa, mesfidantza, axolagabetasuna, hoztasuna, bihozgabetasuna, errezeloa, amorrazioa, amorrura, ezintasuna modukoak.
- **BELDUR emozioak:** Antsietatea, arbuidioa, izu-ikara, alarma, ikara, ahultasuna, izua, hunkipena, fobia modukoak.



## SGK / GRAFIKOAK


Erantzunak jasotzen dira eta, itzulpen grafikoko programazio baten bidez, grafismo bihurtzen dira, zeinek parte-hartzaile bakoitzak eskainitako informazioa laburtzen duten.

Marrakzi horiek sortzeko, kontuan hartzen dira hautatuko erantzunak eta erantzunen bidez adierazitako begiradekiko eta emozioekiko afinitate-maila.

Programazio grafikoa taula gisa erabiltzen den egitura baten arabera sortzen da, erantzunak grafikoki elokuentek izan daitezten.

Parte-hartzea amaitzean, sortutako grafikoa "itzuli" daiteke eta datu kuantitatiboak erakutsi, bere interpretazioa errazagoa izan dadin.

Era berean, plataforman bistaratu daitezkeen mapek, banakako grafikoa gainjartzearen emaitza direnek, analisi- eta eztabaida-kolektiboak laguntzeko datu kuantitatiboak ere erakusten dituzte.





Sorkuntza kolektiborako gailuak "Nola bizi elkarrekin?" inguruan gogoeta publikoa egitea proposatzen du hiru bloke nagusitan egituraturako bederatzi gaien bidez: **ESPAZIOAK, HARREMANAK eta ESPEZIEAK.**

Gai bakoitzarentzat hiru gai hautatzen dira, gure habitaten zenbait eskalei lotuta daudenak. Azpigai bakoitzaz bezainbatean, eman daitezkeen kontestualizazio eta garapen-aieru bat proposatzen da. Adierazitako informazioaz abiatuta sei erantzun aukera proposatzen dira, jarrera desberdinei edo emozioen familiei lotuta daudenak. Parte-hartzaileak bere jarrerari edo irizpideari gehien egokitzen den erantzuna hautatzen du; hautatutako aukerarekiko konbentzimendu-maila adierazi behar du.

## Galderen egitura honakoa hartzen du barne:

- Atalean lantzen den kontzeptua.
- Galdera, zeinak parte-hartzailea gonbidatzen duen gaien kokatzera eta bere sentipenekin eta ideiekin bat datorren erantzuna ematera.
- Azalpenezko testu laburra, parte-hartzaileari proposatutako gaia aurkezten diona lritzia ematea eta harreman gehien duen erantzuna hautatzea errazagoa izan dadin.

## > Galdera bakoitzak bi erantzuteko une dauzka:

1. Hautatu eman daitezkeen 6 erantzunetako bat, nahi den erantzuna sakatzen.
2. Adierazi adostasun-maila emandako erantzunarekin, dagokion zenbakia sakatuz 1-gutxi eta 5-asko artean.

## Egon Daitezkeen Etorkizunei Buruzko Ideien Mapa

1/9

251. parte-hartzailea

ESPAZIOAK

### KOETXEBIZITZA

**Zer uste duzu banakako etxebizitza eredu bati buruz zeinean partekatutako espazioak eta baliabideak dauden?**

1 → Zoru gabezia, prezioen igoera, soldaten geldialdia edo lan-ezgonkortasuna fenomeno komunak dira gaur egun. Koetxebizitza —edo cohousing— gizartearen erantzuna da, zeinean komunitate batek bizitzeko espazioa diseinatzen duen bertako pertsonen beharren arabera, etxe independenteekin eta partekatutako eremuekin eta ezinbesteko zerbitzuekin. Gaur egun adinekoentzako cohousing-ak nagusitzen dira, baina eredu honen gehikuntza nabari da gizatalde guztientzat.

### Adierazi zein gradutan zauden adoz

C → Auzokideen artean laguntzeko eta egunerokotasuna eramangarriagoa egiteko modurik onena da

1 2 3 4 5

GUTXI

ASKO

Atzera



## SKG / GAIAK

Proiektuak, 2020ko lehen fasean honako gaiak garatu izan ditu: ESPAZIOAK/ HARREMANAK/ESPEZIEAK 3 ardatzetatik abiatuz eta hauetariko bakoitzetik, eskala desberdinetan oinarritutako beste azpigai desberdinak ezarriz.

Gai bakoitza, gure elkarbizitzaren garapenaren eskaletara lotutako hiru azpigaietan banatzen da

Gai bakoitzarekin jorratzen den planteamenduak, formularioetan dagoen partehartze atalean daude eskura.

### ELKARREKIN BIZITZEKO ESPAZIOAK

**Azpigai:** KOETXEBIZITZA / **Eskala:** Mikro Koetxebizitza eredu inguruan eta baliabide zein espazio gehiago partekatzen diren eredutara jotzeko joeraren egokitasunaren inguruan hausnartzen du galdera honek.

**Erantzunak IDEIAK galdetegian:** erantzunek zenbait ikuspuntutara erantzuten diete begirada desberdinen arabera. Aukeren artean: efizientzia, belaunaldien arteko harremanak, edo elkarrekintza-dinamikak, etab.

**Erantzunak EMOZIOAK galdetegian:** modu horretan bizitzeari buruzko emozio baikorragori eta ezkorragori lotutako aukerak eskaintzen dituzte erantzunek.

**Azpigai:** ESPAZIO PUBLIKOAK / **Eskala:** Meso Eredu barneratzaileagotara eta jasangarriagotara doazen espazio publikoko ereduak hartzeari buruz hausnartzen du galdera honek.

**Erantzunak IDEIAK galdetegian:** erantzunek zenbait ikuspunturi erantzuten diete begirada desberdinen arabera, hala nola, erabili beharreko materiala, erabilera posibleak, zaintza-dinamikoak, etab.

**Erantzunak EMOZIOAK galdetegian:** espazio horretan nolabaiteko inplikazioa izateari buruzko emozio baikorragori eta ezkorragori lotutako aukerak eskaintzen dituzte erantzunek.

**Azpigai:** 15 MIN HIRIA / **Eskala:** Makro Hiri-eredu bat eraikitzeari buruz hausnartzen du galdera honek, zeinean gure oinarritzko premiak bete gure etxetik, oinez edo bizikletaz, 15 minutuko erradioan.

**Erantzunak IDEIAK galdetegian:** erantzunek zenbait ikuspunturi erantzuten diete begirada desberdinen arabera, euren eraginean, testatzean, generoen arabera eraginetan... ardatzuak daudenak.

**Erantzunak EMOZIOAK galdetegian:** Horrelako hiri-eredu batean bizitzeari buruzko emozio baikorragori eta ezkorragori lotutako aukerak eskaintzen dituzte erantzunek.

# SKG/ GAIAK

## HARREMANAK SAREAN

### **Azpigaia: NORBERAREN ONGIZATEA / Eskala: Mikro**

Galdera honek autozaintzen eta norberaren ongizatearen inguruan hausnartzen du; oreka sistemikoa izateko funtsezko akzio gisa planteatzen ditu.

**Erantzunak IDEIAK galdetegian:** erantzunek zenbait ikuspunturi erantzuten diete begirada desberdinen arabera. Erantzunen artean, batzuk bere garrantziarekin, horiek sustatzeko dinamikekin,... lotuta daude.

**Erantzunak EMOZIOAK galdetegian:** autozaintzaren garrantziari eta horrekiko ardurari buruzko emozio baikorragori eta ezkorragori lotutako aukerak eskaintzen dituzte erantzunek.

### **Azpigaia: ESTIMUEN SAREAN / Eskala: Meso**

Galdera honek gure komunitate gertuenaren edo bizikidetzaren nukleoren inguruan hausnartzen du, egungo premiak aurkezten dira eta horiek betetzeko gertutasuneko sare-ereduen alde egiten da.

**Erantzunak IDEIAK galdetegian:** erantzunek zenbait ikuspunturi erantzuten diete begirada desberdinen arabera, hala nola, gertuko sareen antolatzeak aukerak, generoen arteko oreka, mintzatzeko espazioak, etab.

**Erantzunak EMOZIOAK galdetegian:** gertutasuneko sare antolatuen ereduari buruzko emozio baikorragori eta ezkorragori lotutako aukerak eskaintzen dituzte erantzunek.

### **Azpigaia: OSASUN KOMUNITARIOA / Eskala: Makro**

Egun gutxi garatu diren osasun komunitarioko ereduak buruz eta bizitza komunean duten garrantziari buruz hausnartzen du galdera honek. Era berean, horiek eredu integratzaileetara garatzea sustatzen da.

**Erantzunak IDEIAK galdetegian:** erantzunek zenbait ikuspunturi erantzuten diete begirada desberdinen arabera, hala nola, gizarteratzean duen eragina, eredu posiblea, beste krisialdiekin duten harremana, etab.

**Erantzunak EMOZIOAK galdetegian:** aipatutako ereduaren garapenean esku hartzeari buruzko emozio baikorragori eta ezkorragori lotutako aukerak eskaintzen dituzte erantzunek.

# SKG/ GAIAK

## ESPEZIEN arteko ELKARLANA

### **Azpigaiia: GIZA-DIBERTSITATEA / Eskala: Mikro**

Gizarteratzearen eta giza-dibertsitatearen inguruan hausnartzen du galdera honek, horiek gure bizitzan kulturantzunarekiko garapen-ardatz nagusi gisa hartuta.

**Erantzunak IDEIAK galdetegian:** erantzunek zenbait ikuspunturi erantzuten diete begirada desberdinen arabera, hala nola, kontuaren osotasuna, ikaskuntza-espazioak, etab.

**Erantzunak EMOZIOAK galdetegian:** integrazio kulturantzunarekiko joerari buruzko emozio baikorragori eta ezkorragori lotutako aukerak eskaintzen dituzte erantzunek.

### **Azpigaiia: ESPEZIEN ARTEKO DIBERTSITATEA / Eskala: Meso**

Galdera honek espezien arteko mutualismoen eta elkarlanaren inguruan hausnartzen du, baita euren onuren inguruan ere.

**Erantzunak IDEIAK galdetegian:** erantzunek zenbait ikuspunturi erantzuten diete begirada desberdinen arabera, hala nola, errespetua, ingurunearekiko eraginak, ongizatea, etab.

**Erantzunak EMOZIOAK galdetegian:** elkarrenganako oreka eta onura bilatzen harreman horiek esploratzeari buruzko emozio baikorragori eta ezkorragori lotutako aukerak eskaintzen dituzte erantzunek.

### **Azpigaiia: BIODIBERTSITATEA / Eskala: Makro**

Habitatzen ditugun bernaturalizazioari eta eraldaketa horren esentzialtasunari buruz hausnartzen du galdera honek.

**Erantzunak IDEIAK galdetegian:** erantzunek zenbait ikuspunturi erantzuten diete begirada desberdinen arabera, premia nagusi gisa, nortasun kolektibo gisa, inguru erraztatzaile gisa, etab.

**Erantzunak EMOZIOAK galdetegian:** bertakotuagoak dauden inguruneetan bizitzeari buruzko emozio baikorragori eta ezkorragori lotutako aukerak eskaintzen dituzte erantzunek.


## SKG / PROGRAMAZIO GRAFIKOA

### EGITURA GRAFIKOA ETA PROGRAMAZIOA IDEIEN MAPA

Planteatutako etorkizuneko egoerez abiatuta, hautatutako erantzunak proiektuaren begiradekin lotzen dira eta horrela, sei eremu zentrokide dituen eskema batez abiatuta, egituratzen da; beraz, zentrotik aldenduen dauden marrazkiak modu argiagoan iritzia eman dutenak dira eta zentrotik gertuen daudenak konbentzimendu gutxiena dutenak. Marrazkiaren dentsitatea hautatutako aukeraren konbentzimendu-mailaren araberkoa izango da eta horrela eratuko da pertsona baten partaidetzaren emaitzako marrazkia.

Horrela, aurkeztutako jarrerai gehiago egokitzen diren jarrerak irudikatuko dituzten marrazkiak izango dira grafiko irekienak edo erdigunetik aldenduenak. Era berean, marrazkiaren intentsitatea irudikatuko dute, afinitate hori nabarmentzen duena.

Modu horretan sortzen da pertsona bakoitzaren parte-hartzearen emaitza den marrazkia eta, gainezarpen gisa, parte-hartzearen emaitzak grafiko batean irudikatzen dituzten talde-mapak sortzen dira.





# SKG / PROGRAMAZIO GRAFIKOA

## EGITURA GRAFIKOA ETA PROGRAMAZIOA

### EMOZIOEN MAPA

Proposatutako egoerez abiatuta, hautatutako erantzunak sei emozio motetan bildutako emozioekin lotzen dira. Marrazkiaren dentsitatea hautatutako aukeraren intentsitatearen arabera da eta horrela eratuko da pertsona baten partaidetzaren emaitzako marrazkia.

Horrela, trazu intentsitate handiagoa duten grafikoak adierazitako emozioan intentsitate handiagoa erakusten duten marrazkia dira.

Modu horretan sortzen da pertsona bakoitzaren parte-hartzearen emaitza den marrazkia eta, gainezarpen gisa, parte-hartzearen emaitzak grafiko batean irudikatzen dituzten talde-mapak sortzen dira.



# SKG / BISTARATZEA

Atal honetan partaidetzaren emaitzak eta ondorioak ikus daitezke, parte-hartzaileen erantzunen arabera, mapa gisa, zeinek lotutako datuak dituzten ondo interpretatu dadin. Mapa hauek horrela egituratzen dira:


**IDEIEN mapa:** Talde parte-hartzaileek ideien galdetegira emandako erantzunak gainjartzean sortutako talde-mapa.

**EMOZIOEN mapa:** Talde parte-hartzaileek ideien galdetegira emandako erantzunak gainjartzean sortutako talde-mapa.

Gailuari esker, iritzia eta adierazpenak bistaratu daitezke, banaka zein talde-gainezarpenera eginda, bai tresna banaka erabiltzen baduzu bai talde baten kide bazara.
